

Orain ezberdina da. Albokari zaharrek ez zuten era sistematiko batean irakasten. Ez zuten teknika pentsatua. Bazekiten zelan irakatsi, baina teorizatu barik. Leonek eta Txilibrinek ezin zuten azaldu era sistematiko batean, baina eurengana jo eta zer egiten zuten ikusita asko ikasten zen. Orain, ordea, metodoak badagoz eta gugandik zuzenean askoz arinago ikasten da. Hurrengo albokari gazteak hor daude eta espero dugu berriro ere etenik ez gertatzea.

Eskolan, aurrez-aurre, irakasteko zein metodo erabiltzen duzu?

Partiturak erabiltzen ditugu nirean, baina ez dago zertan solfeo ikasi beharrik; izan ere, sei nota baitira erabiltzen ditugunak. Maisuari zelan egiten den ikusten dio ikasleak eta gero apaindurak eta bestelako gauzak praktikatzen joaten da.

Metodo multimedia bat ere garatu duzu, ezta?

Nire asmoa maisua eta partitura CD-Rom batera pasatzea da. Aurrerakuntza handia izango zen alboka ikasi ahal izatea norberak bere etxean edota Ameriketan edo beste leku batean egonda. Zirraborra eginda badaukat, baina oraindik garatu behar da.

Tresna tradizionalen inguruan ari zareten guztion artean harreman estua dago. Hori garrantzitsua da, ezta?

Beharrezkoa da noski. Baina hortaz aparte nik uste dut garrantzitsua dela beste musikariek eta beste pentsamolde bat duen jendearekin uztartzea eta ez aparte gelditzea. Ez da bakarrik zure auzuneko jendearekin batera aritzea. Eta zentzu horretan, beste musika estiloak jorratzen dituztenekin batzea ere aberasgarria da. Horretan ez dago zertan lotsati izan behar, besteekin komunikatu behar dugu.

Askotan muga gehiegi jartzen ditugula esan gura duzu?

Hori da. Interesgarriagoa da edozein musikarekin lan egitea.

Zentzu horretan oso aberasgarria da atzerriko beste kultura batzuekin kontaktuan egotea?

Atzerriko gauzak ikusita geure burua ere hobeto ezagutu dezakegu. Aberastasun horrek sortu ahal ditu zaletasun handiagoak gazteen artean.

Atzerrian askotan egon zara. Asko ikasi duzu ateraldi horietan?

Beti da interesgarria ikuspegia aldatzea. Dena den, globalizazioa dela eta gero eta antzekotasun handiagoak topatzen dituzu leku gehienetan.

Musika tresna tradizionalen bultzaduan musikariak ari zarete dituzuenak eta bi ematen.

Noizbait bota duzue faltan erakundeen laguntza edo interesa?

Musikariok hor gaude, baina baita musika tresna egileak ere. Horiek ere oso garrantzitsuak dira. Erakundeek azken bolada honetan interes gehiago jartzen ari dira. Adibidez, musiken goi mailako kontserbatorioan Kepa Junkerak sortu du musika tradizionalen kurrikulua bat eta ho-



Ibon Koteron Deustuko zubiaren ondoan, bere alboka eskuan duela.

ri badirudi ofizialtasun bat emango zaiola. Beste kasu batzuetan, ofizialtasuna emateko nahian edo, ikastaroak sortu dira alboka eta bestelako soinu tresnen irakasleak prestatzeko. Administrazioaren asmoa batzutan izan da soberan zeuden bibolin irakasleak horretan birziklatzea, eta ez musika tresna horiek jotzen

«HEZKUNTZA BEHAR DELA ARGI DAGO, BAINA HORREK EZ DU ESAN GURA ZENTRALIZAZIOA BEHAR DENIK»



zuen jende horri tituluzioa ematea. Hasierako ideiak izan ziren horiek. Juan Mariri esker buelta eman zitzaion asmo horri. Dena den, ikasketa horiek lortzeak, azken finean, ez du ezertarako balio. Jendeari baldintza batzuk betetzea eskatzen zaio, baina gero benetan ez da ipintzen dirua horren alde.

Hezkuntza da musika tradizionala mantentzeko gakoa?

Beharrezkoa dela argi dago, baina horrek ez du esan nahi zentralizazioa egon behar danik. Nik esaten dudanean "nire eskolako albokariak", horik nire metodoa erabiltzen dutenak dira. Nigaz zuzenean ikasi zuten albokari asko dira ari dira orain irakasle lanean. Orduan, gure ikuspegiari jarraituz ari diren ikasle asko ez nau zuzenean ezagutzen. Asmoa ildo bat zabaldu eta horri ekitea da.

Askotan esan da musika tresna tradizionala bere horretan mantendu behar dela; hots, garapen edo eboluzioari muzin egiten diote askok. Ados zaude jarrera horrekin?

Asuntoa da zelan ulertzen den tradizioa. Batzuk esaten dute zerbait aldatzen baduzu dagoeneko ez dela tresna hori. Galdera orduan honakoa da: tresna hori zein da? Zuk ezagutzen duzuna? Zure aititeak ezagutzen zuena? edo, orain dela 4.000 urtekoa? Ez du zentsurik. Tradizioa ez datza gauzak finko mantentzean; tradizioa eboluzio bat da, bizitza bezala. Albokari zaharrek ez diote inoiz aurrerakuntza bati muzin egin. Akats hori folkloristena dela uste dut, ez musikariena. Polemika horietan sartzea gainera ez dut uste ezertarako balio duenik.



KURRIKULUMA

1967an Bilbon sortu zen Ibon Koteron. Alboka jotzen hasi eta berehalakoan ekin zion klaseak emateari. 1996. urtean bere estraineko diskoa kaleratu zuen, "Leonen Orroak", Kepa Junkerarekin batera landutakoa alboka disko osoan agertzen zen estraineko lana izan zen hura, musika tresna tradizional horrentzat bultzada garrantzitsua. Ibon Koteron filosofia klaseak ematen ditu institutu batean eta bitartean alboka ikasteko metodo multimedia bat garatzen eta egiten ari da, zeinak aurki argia ikusiko duen.

Diskografia

"Leonen Orroak", Elkarlanean, 1996.
"Aire", Elkarlanean, 2004.

Albokari arnasa itzuli

Arnasa bueltatu nahi diogu albokari Alan honekin. Berriro arnas hardezan lortu gura dugu. "Leonen Orroak" diskoarekin hasi genuen bidean bigarren hurrats bat da hau», dio Ibon Koteronek. "Airea" (Elkarlanean) da albokari bilbotarrak kaleratu duen lan berria. Bertan material berriarekin aritu dira lanean: «Alboka zaharrek berreskuratu ditugu, eskala zaharrekin. Gaur egun grabatzen duguna dana dago normalizatuago, estandarizatuago. Alboka zaharretan, ordea, notak ez dira pianoko



notak. Hasteko Leonen eta Txilibrinen grabazioetan notak guk ditugunak baino tonu erdi baxuago daude. Tonu estandarizatutik at dauden notak dira eta horrek eskala oso bereziak sortzen ditu». Galdutako harribitxi horiek berreskuratu ditu Koteronek lan berri honetan. Nola edo hala bidaia geografiko eta mistikoa landu du bilbotarrak proiektu honetan. Musika, albokaren doinua da ibilgailua eta gidaria bidaia horretan.

Bidaia liluragarri hori egin ahal izateko, etxeko lagun ugari hartu dute parte diskoan, bai eta atzerriko musikariak ere: Ruper Ordorika (ahotsa), Iñaki Plaza eta Ruben Isasi Etxak (perkusioak), Faltriqueira (Galizia, ahotsak), Solledona (Korsika, ahotsak), Pekka Westerholm eta Heikki Syrjänen (Finlandia, lirru, mankeri), Roston Kuchichian (Armenia, duduk), Gilles Chabenat (Frantzia, vielle), Andrea Pisu (Sardinia, launeddas). «Oso proiektu polita eta gauzatu dela iruditzen zait. Era berean, musikaz aparte, letrak ere irakurtzekoak dira», aitortzen du bilbotarrak.